

ZIURTAGIRI-POLITIKA
ORDEZKARIA

Erreferentzia: Ordezkariaren ziurtagiriaren politika
Bertsio zk.: v 1.3
Data: 2017ko ekainaren 1a

© Izenpe 2017

Dokumentu hau Izenperena da. Kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik.

 **Izenpe**
Tomas Zumarraga Dohatsua 71, 1. solairua
01008 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 067 723
www.izenpe.com





AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIAREN DESKRIBAPENA	3
1.1	DEFINIZIOA	3
1.2	EUSKARRIA ETA SEGURTASUN-MAILA	3
1.3	ERABILERA-ESPARRUA.....	4
1.4	XEDAPEN OROKORRAK	4
1.4.1	IDENTIFIKAZIO-BETEBEHARRAK	4
1.4.2	ZIURTAGIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK	4
2	ZIURTAGIAREN BIZI-ZIKLOA	5
2.1	ESKABIDEA.....	5
2.2	PERTSONA FISIKO ESKATZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA	5
2.3	ERAKUNDEAREN AKREDITAZIOA ETA ESKATZAILEAREN AHALMENAK	5
2.4	ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA ENTREGATZEKO PROZEDURA	5
2.5	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA	6
2.6	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA.....	6
2.7	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA	7
3	ZENBATEKOA	7
4	ZIURTAGIRIEN PROFILAK	7
5	ALDAKETAK.....	8
5.1	ALDAKETAREN KUDEAKETA.....	8
5.2	ALDAKETA KONTROLA _ 1.0 BERTSIOA	8
1.0 BERTSIOTIK 1.1 BERTSIOA.....		8
1.1 BERTSIOTIK 1.2 BERTSIOA.....		9
1.2 BERTSIOTIK 1.3 BERTSIOA.....		9



Dokumentu honek *Erakundearen ordezkariaren eta Nortasun juridikorik gabeko erakundearen ordezkariaren* ziurtagiriei dagokien *Politika* jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA* enpresak (aurrerantzean Izenpe) jaulki du ziurtagiri hori.

1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Pertsona fisikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa jaulkitzen dira bi ziurtagiriak, *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduan (EB) (erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du)* ezarritakoaren arabera.

Erakundeari lotuta daude eta identifikatutako pertsona fisikoaren legezko ordezkariaren izaera akreditatzen dute.

Honela ulertuko dira:

- **Harpideduna:** erakundea.
- **Gakoen edukitzailea:** ziurtagirian identifikatutako pertsona fisiko eskatzailea izango da, erakundearen izenean jarduteko ahalmena duena.

Politika honetan jasotako ziurtagiriek 4 urteko iraunaldia dute.

1.2 Euskarria eta segurtasun-maila

ORDEZKARIAREN ZIURTAGIRIA	EUSKARRIA	OIDa	eIDAS SEGURTATZE-MAILA *
Erakundea.	HSMa	1.3.6.1.4.1.14777.2.14	Oinarrizkoa
	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa.	1.3.6.1.4.1.14777.2.12	Handia
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea.	1.3.6.1.4.1.14777.2.16	Oinarrizkoa
Nortasun juridikorik gabeko erakundea.	HSMa	1.3.6.1.4.1.14777.2.15	Oinarrizkoa
	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa.	1.3.6.1.4.1.14777.2.13	Handia
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea.	1.3.6.1.4.1.14777.2.17	Oinarrizkoa

* 2015/1502 Egikaritze Erregelamendua (EB), 2015eko irailaren 8ko Batzordearena, identifikazio elektronikoko bitartekoen segurtasun-mailetarako zehaztapen eta prozedura teknikoak finkatzeari buruzkoa, betiere barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 Erregelamenduaren (EB) 8. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.



1.3 Erabilera-esparrua

Erabiltzaileak ziurtagiria erabiliko du ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarrenek eskainitako zerbitzuetan, Izenperen [Termino eta baldintzen](#) dokumentuan eta [Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin.

1.4 Xedapen orokorrak

1.4.1 Identifikazio-betebeharrak

Izenpek dagozkion erregistroetan egiaztatzen ditu, bere kabuz edo dagokion lege-tresna izenpetu duten erakunde erabiltzaileen bitartez, ziurtagirian jasota dauden identitatea eta beste edozein inguruabar pertsonal.

1.4.2 Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharrak

Harpidedunaren betebeharrak dira [Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren](#) 9.6.9 apartatuan (*Ziurtagiri-harpidedunaren betebeharrak*) jasotakoak.



2 ZIURTAGIRIAREN BIZI-ZIKLOA

2.1 Eskabidea

[Izenperen webguneko](#) sarbidearen bitartez, eskatzaileak ziurtagiria eskatzeko inprimakia beteko du.

Eskabidea sinatuta, eskatzaileak ziurtagiria erabiltzeko [Terminoak eta baldintzak](#) onartuko ditu.

2.2 Pertsona fisiko eskatzailearen identitatea egiaztatzea

Izenpek eskatzailearen identitatea egiaztatuko du:

- ✓ **Aurrez aurre**, erregistro-erakundearen aurrean, indarreko dokumentu hauen bidez:
 - Espainiako herritarra: NANA, pasaporte edo gida-baimena.
 - Europar Batasuneko / Europako Esparru Ekonomikoko herritarra: AIZ eta pasaporte edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionala.
 - Europar Batasunaz kanpoko herritarra: AIZ eta pasaporte.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada adierazitako moduan egin, Izenpek zehaztuko du kasu bakoitzean behar den dokumentazioa.

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo Izenperi baimena eman beharko dio datuak administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskabide-inprimakiaren bitartez.

- ✓ **Notarioak** ziurtagiria jaulkitzeko eskabidearen sinadura **legitimatuta**.
- ✓ Ziurtagiria jaulkitzeko eskabidearen **sinadura** NAN elektronikoaren bidez egiten denean, pertsona fisikoaren **ziurtagiri kualifikatua** edo erakundearen / nortasun juridikorik gabeko erakundearen ziurtagiria, biak ere Izenpek jaulkiak.

2.3 Erakundearen akreditazioa eta eskatzailearen ahalmenak

Izenpek erakundearen eraketa eta indarraldia eta sinatzailearen ordezkartza-ahalmenak egiaztatuko ditu, alderdi horiek akreditatzen dituzten dokumentuen bidez edo bidezko erregistro-egiaztapenen bitartez.

[Izenperen webgunean](#) argitaratzen da erakunde bakoitzak bere konfigurazio juridikoaren arabera aurkeztu beharko duen dokumentazioa.

2.4 Ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko prozedura

Ondoren, Izenpek jaulki eta entregatuko du ziurtagiria.

SOFTWAREA _ IZENPEREN EDUKITZAILEA

1. Izenpek edukitzaile huts bat bidaltzen dio eskatzaileari posta elektronikoaren bidez eskabidean adierazitako helbidera.
2. Eskatzaileak edukitzailea hasieratu eta pare bat gako eta eskaera teknikoa (csr) sortzen ditu.
3. Eskatzaileak eskabide teknikoaren fitxategia (csr) bidaltzen dio Izenperi.



4. Izenpek ziurtagiria jaulkitzen du eskatzaileak emandako eskaera tekniko erabiltuta.
5. Izenpek ziurtagiria bidaltzen du eskabide-inprimakian adierazitako helbide elektronikora.

TXARTELA / USB TOKENA

➤ [Aurrez aurre entregatzea.](#)

Izenpek eskatzaileari edo baimendutako hirugarrenari (baimen-dokumentua aurkeztu beharko du, sinatua eta notarioak legitimatua) entregatuko dizkio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUK).

➤ [Aurrez aurre izan gabe entregatzea.](#)

Izenpek ziurtagiria *jaulkitzeko eskabidean* adierazitako posta-helbidera bidaliko ditu ziurtagiria eta gakoak, 2 bidalketa bereizitan. Erakunde eskatzaileak bere gain hartuko ditu bidalketa-gastuak.

Izenpek egiaztatuko du bidalketa gakoan edukitzaileari bakarrik entregatzen zaiola.

HSMa

Izenpek

- Ziurtagiria sortuko du bere HSMan, baita erabiltzaile bat eta pasahitz bat sortu ere (gakoan edukitzaileari bakarrik entregatuko zaizkiola bermatuko du).
- Eta mezu elektronikoa bat bidaliko du ziurtagiria *jaulkitzeko eskabidean* adierazitako helbidera, ziurtagiria erabiltzeko argibideekin batera.

2.5 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak 15 egun baliodun izango ditu, ziurtagiria jaulkitzen denetik aurrera, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, Izenperi funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak arrazoi teknikoen ondorio direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoak, eta abar) edo Izenperi egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du Izenpek ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.6 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ [Ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea](#)

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Harpidedunak](#): erakunde harpidedunaren legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurrekoek baimendutako hirugarrenak dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena.
- [Gakoan edukitzaileak](#).
- [Izenpek](#): Izenperen administratzaileek eta erregistro-erakundeek dute azken erakundearen harpidedun-ziurtagiriak ezeztatzea eskatzeko baimena.



➤ Prozedura

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak Izenperen aurrean tramitatuko du *ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea*.

Ziurtagiria edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta ziurtagiria lapurtu edo galdu denean beti.

Eskatzaileak honako bide hauetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria:

- [Aurrez aurre](#), Izenperi www.izenpe.eus webgunean hitzordua eskatuta.
- [Posta bidez](#), ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea sinatuta eta notario aurrean legitimatu ostean bidalita.
- [Telefonoz](#), 902 542 542 telefono-zenbakira deituta.
- [Online](#), www.izenpe.eus helbidean.

[Telefonoz eta online](#) ezeztatu nahi izanez gero, honako hauek beharko dira identifikatzeko:

- Telefonoz identifikatzeko pasahitza.
- NANA /AIZ.
- Erakundearen IFK.

➤ Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.eus).

2.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da. Honela egin daiteke:

- [Online](#): berritu beharreko ziurtagiriak indarrean egon beharko du, eta eskatzaileak gakoak ezagutu beharko ditu.

Beharrezko egiaztapenak egin ostean, Izenpek *ziurtagiria jaulkitzeko eskabidean* adierazitako posta-helbidera bidaliko dizkio ziurtagiria eta gakoak eskatzaileari. Bi bidalketa bereizitan bidaliko dizkio.

Izenpek egiaztatuko du ziurtagiria gakoan edukitzea bakarrik entregatzen zaiola.

- [Aurrez aurre](#): Izenpek ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera tramitatuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

Ziurtagiriaren eskatzaileak hautatutako ordainketa-aukeraren arabera ordaindu beharko du ziurtagiriaren zenbatekoa.

Izenpek urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.eus webgunean.

4 ZIURTAGIRIEN PROFILAK

Izenpek www.izenpe.eus webgunean argitaratzen ditu ziurtagiriaren profilak.

5 ALDAKETAK

5.1 Aldaketaren kudeaketa

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak Izenperen Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Dokumentazio espezifikoaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

5.2 Aldaketen kontrola _ 1.0 bertsioa

Eskakizun osagarriak	➤ <i>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura (EB) egokitzea (erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du).</i>
Eguneratutako eskakizunak	
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	

1.0 bertsiotik 1.1 bertsiora

Eskakizun osagarriak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ordez kariaren eta Nortasun juridikorik gabeko ordez kariaren ziurtagiria software-euskarrian jaulkitzeko eta entregatzeko prozedura gehitu da. ➤ Ordez kariaren ziurtagiria HSM euskarrian jaulkitzeko aukera ezabatu da.
Eguneratutako eskakizunak	➤ Gailu bakoitzerako OID espezifikoa definitu da.
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	

1.1 bertsiotik 1.2 bertsiora

Eskakizun osagarriak	➤ Ordezkariaren ziurtagiria HSM euskarrian jaulkitzeko aukera ezabatu da.
Eguneratutako eskakizunak	
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	

1.2 bertsiotik 1.3 bertsiora

	EPIGRAFEA / ARGIBIDEAK
Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none"> – Ordezkariaren Politikaren 1.3 bertsioak erregulatzen du ziurtagiri hau HSM euskarrian jaulkitzea. – 2. epigrafea: ziurtagiriaren bizi-zikloaren deskribapena eguneratu da.
Argibideak	
Formatu-eguneratzeak.	
Ezabatzeak.	